

# ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA TRATU TXARRAK GERTATZEN DIREN FAMILIETAN

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak > Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei edo familiei laguntza ematea**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Familia-dinamika desagokien ondorioz (tratu txarrak, abandonua, arduragabekeria, abusuak...) babesgabetasun larrian dagoen kideren bat duten familia-unitateei gizarte- eta hezkuntza-laguntza edota laguntza psikosoziala emateko zerbitzuak dira ([2.7.3.1 fitxa](#)). Esku-hartzeen helburua da:

- Familiei portaera desagokiak ordeztan laguntzea, kideak behar bezala zaintzeko behar diren gaitasunak eskuratuz.
- Familiako bizikidetza gehiago honda ez dadin prebenitzea, portaera moldakaitzei edo krisi-egoerei aurre eginez.

Familiako esku-hartze espezializatu horiek banaka, familian edo taldean egin daitezke, bai etxean bertan, bai etxetik kanpo, esku-hartze psikosozial eta/edo terapeutikoen bidez. Zehazkiago, honela gauzatzen da:

- a. familia arazotsuetan esku-hartze terapeutikoko zerbitzuak;
- b. tratu txar, abandonu edo esplotazio egoeretan esku hartzeko zerbitzuak;
- c. sexu-abusu egoeretan esku hartzeko zerbitzuak.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

**Babesgabetasun-egoera larrian** dauden adin txikiko edo nagusiko pertsonak dituzten familiak, genero-indarkeriako egoerei aurre egiten dietenak barne.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Familiako kideren baten babesgabetasun larriaren diagnostikoa.
- Ez da aldez aurreko erroldatzerik behar esku-hartzea adingabeen babesgabetasunaren ondorio denean.
- Genero-indarkeriaren biktimei ez zaie inolako administrazio-baldintzarik eskatzen.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

**Foru Aldundien ardura** da zerbitzua ematea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** eska dezakezu informazioa. [SATEVI](#) zerbitzuan informazio espezializatua eman diezazukete-900 840 111

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

## Informazio gehiago:

- [Esku-hartze psikosoziala tratu txarrak gertatzen diren familietan Araban](#)
- [Esku-hartze psikosoziala tratu txarrak gertatzen diren familietan Bizkaian](#)
- [Esku-hartze psikosoziala tratu txarrak gertatzen diren familietan Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)